

**Artium Fundazioko langileen jokabide-
kodea**

**Artium Fundazioaren Patronatuak
ohiko bilkuran onartua, 2021eko
urriaren 28an.**

**Código de conducta de las trabajadoras
y los trabajadores de la Fundación
Artium**

**Aprobado por el Patronato de la
Fundación Artium
en sesión ordinaria, el 28 de octubre de
2021.**

1. Sarrera

Jokabide-kode honi buruz

Artium Fundazioaren jokabide-kodea bertan lan egiten duten pertsonen jokabide etiko eta arduratsuaren gida da. Sektore publiko foraleko fundazio bateko langile diren heinean Fundazioko enplegatuek herritarrekiko, administrazioarekiko, fundazioarekiko eta fundazioko kideekiko duten erantzukizun indibidual eta kolektibotik dator, eta erakundearen balioak islatzen ditu.

Artium Fundazioaren balioak

- Sormena eta gaitasun kritikoa sustatzea
- Zorroztasunez, enpatiaz eta gardentasunez lan egitea
- Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza bilatzea iraunkorki
- Publiko berriekiko elkarrikeria lantzea
- Aniztasun- eta inklusio-irizpideak aintzat hartuz lan egitea
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzea
- Euskararen erabilera soziala eta, oro har, hizkuntza-bizikidetzaren sustatzea

2. Aplikazio-eremua

Kode hau Fundazioko hitzarmen kolektiboari lotutako langile guztiei aplikatuko zaie.

Beken edo lantokiko praktiken bidez prestakuntza-prozesua Fundazioan osatzen duten pertsonen ere kodea ezagutu eta bete dezaten sustatuko da.

Eta orobat sustatuko da erakundeari zerbitzua ematen dioten enpresa azpikontratatuak kodea ezagutu eta betetzea.

1. Introducción

Sobre este código de conducta

El Código de conducta de la Fundación Artium es la guía de comportamiento ético y responsable de las personas que trabajan en la misma. El Código deriva de la responsabilidad individual y colectiva como empleadas y empleados de una fundación del sector público foral respecto a la ciudadanía, la administración, la Fundación y los integrantes de la misma, y refleja los valores de la organización.

Valores de la Fundación Artium

- Incentivar la creatividad y la capacidad crítica
- Trabajar con rigor, empatía y transparencia
- Buscar permanentemente la innovación y la mejora continua
- Cultivar la interlocución con nuevos públicos
- Trabajar con criterios de diversidad e inclusión
- Garantizar la igualdad de mujeres y hombres
- Promover el uso social del euskera y, en general, la convivencia lingüística

2. Alcance

El presente código resulta de aplicación a todo el personal laboral de la Fundación sujeto al convenio colectivo de la misma.

También se promoverá su conocimiento y adhesión entre las personas que completen en la Fundación su proceso de formación mediante becas o prácticas en centro de trabajo.

Asimismo se promoverá su conocimiento y adhesión entre las empresas subcontratadas que prestan servicios a la organización.

3. Kodea betetzea

Artium Fundazioko langileek beren gain hartzen dute beren jardura profesionalean kode honek ezarritako printzipio eta irizpideen arabera jarduteko betebeharra, indarrean dauden lege-arauak eta Fundazioak bere egin litzakeen hitzarmen etiko eta profesionalak betetzeko betebeharrak gainera.

Kode hau bete behar duten pertsonak ez daude behartuta haren aurkako aginduak betetzera; kolektibo gisa kodeari jarraitzeak duen garrantziaz jabetuta, ulertzen dute haren edozein ez-betetze jakinarazteko beharra.

Pertsonen gaineko erantzukizunak dituzten langileek modu aktiboan sustatu behar dute beren lantaldeetan kodea betetzea; horretarako, laguntza eta sostengua emango dute, haren aurkako agindurik ematea saihestuko dute eta eredu izango dira.

4. Konpromisoak

Kode honen bidez, honako konpromiso hauek hartzen dituzte Artium Fundazioko langileek beren gain:

Profesionaltasuna eta osotasuna

1. Osotasunez, objektibotasunez eta profesionaltasunez jardutea, eta beren erabakietan arbitrariotasuna eta kontsiderazio eta interes pertsonalak baztertzea.
2. Erabakiak hartzeko garaian inpartzialtasuna galaraz lezaketan interes-gatazkak saihestea; eta ez ematea hitzarmenak, kontratuak eta bestelakoak onartzeari buruzko iritzirik, baldin eta azken bi urteetan haiei buruzko inolako harreman pertsonalik, familiarterkorik edo zerbitzu profesionalak emateari dagokionik izan badu.
3. Ez eskatzea eta ez onartzea Artium

3. Cumplimiento del Código

Los trabajadores y las trabajadoras de la Fundación Artium, además de cumplir las normas legales vigentes y los convenios éticos y profesionales a los que la Fundación pudiera adherirse, asumen la obligación de ajustar su actividad profesional a los principios y criterios establecidos en este Código.

Las personas sujetas a este Código no están obligadas a cumplir órdenes contrarias al mismo; conscientes de la importancia de su seguimiento como colectivo, entienden la necesidad de notificar cualquier incumplimiento del mismo.

Quienes tienen responsabilidades sobre personas deben promover activamente el cumplimiento del Código en sus equipos de trabajo, prestando apoyo y ayuda, evitando emitir órdenes contrarias al mismo y liderando con el ejemplo.

4. Compromisos

Las trabajadoras y trabajadores de la Fundación Artium asumen, mediante este Código, los siguientes compromisos:

Profesionalidad e integridad

1. Actuar con integridad, objetividad y profesionalidad, y excluir en sus decisiones la arbitrariedad y las consideraciones e intereses personales.
2. Evitar los conflictos de intereses que puedan alterar su imparcialidad en la toma de decisiones; y evitar pronunciarse respecto a la aprobación de convenios, contratos y otros asuntos en los que tengan una relación personal, familiar o de prestación de servicios profesionales en los dos últimos años
3. No solicitar ni aceptar regalos ni compensaciones de ninguna clase

Fundazioan egiten duen lanari atxikitako eginkizunak betetzeagatik hirugarrenen inolako oparirik edo konpentsaziorik, gizarte- eta adeitasun-usadioen barruan arrazoizkotzat jotakotik haratago. Eta Fundazioaren esku jartzea ezohiko egoeretan -hala nola ospakizun edo protokolo-ekitaldietan- haren izenean jasotako edozein opari.

4. Ez eskaintzea edo baimentzea hirugarrenei konpentsaziorik Fundazioarentzat legez kanpoko abantailak lortzeko.

Leialtasun profesionala

5. Artium Fundazioan dituen eginkizunak eta erantzukizunak betetzeko behar duen gaitasun profesional eta ahalegin pertsonal guztia egitea, behar den arduraz, lehenetsunezko arretaz eta, betiere, Fundazioaren interesarekin bat etorrita.
6. Lankideekiko elkarlana hartzea lantresna nagusitzat, lankideei beren eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezko informazioa eta laguntza ematea, ahal den neurrian, eta harreman pertsonal egokiak izatea langiro ona sortzeko.
7. Arrazionaltasun-irizpideak aplikatzea Fundazioaren kontura egiten diren gastuetan, norberaren lan-jarduerarekin zerikusia badute eta behar bezala justifikatzen badira, betiere.
8. Fundazioak bultzatutako prestakuntza-jardueretan parte hartzean ahalik eta etekin handiena lortzen saiatzea.

Berdintasuna

9. Berdintasuna hartzea bizikidetzaren oinarritzko printzipiotzat lankideekiko harremanetan.
10. Oro har eta, bereziki, lan-ingurunean,

procedentes de terceros por realizar funciones propias de su trabajo en la Fundación Artium, más allá de aquellos considerados razonables dentro de los usos sociales y de cortesía. Asimismo, poner a disposición de la Fundación cualquier obsequio que se recibe en su nombre en ocasiones excepcionales, como celebraciones y actos protocolarios.

4. No ofrecer o autorizar compensaciones a terceros con el fin de obtener ventajas ilícitas para la Fundación.

Lealtad profesional

5. Dedicar toda su capacidad profesional y el esfuerzo personal necesario para cumplir con sus funciones y responsabilidades en la Fundación Artium; hacerlo con la diligencia necesaria, con atención prioritaria y siempre conforme al interés de la Fundación.
6. Hacer de la cooperación con sus compañeras y compañeros la primera herramienta de trabajo; proporcionar a estas y estos en la medida de lo posible la información y ayuda necesarias para desarrollar adecuadamente sus funciones; establecer además unas relaciones personales correctas que propicien un buen ambiente de trabajo.
7. Aplicar criterios de racionalidad en los gastos que se realizan por cuenta de la Fundación, siempre relacionados con su actividad laboral, y justificados debidamente.
8. Procurar obtener el máximo rendimiento cuando se participa en actividades de formación propiciadas por la Fundación.

Igualdad

9. Hacer de la igualdad un principio básico de convivencia en las relaciones con compañeras y compañeros.

emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna naturalizatzea.

11. Sexu-identitate, arraza, ideologia, erlijio edo gizarte-baldintzengatik bereizkeria oro baztertzea.
12. Era berean, abusuzko, irainezko edo larderiazko jokabide oro eta pertsonenganako indarkeria fisiko, psikologiko edo moralaren adierazpen oro baztertzea.

Ingurumenarekiko konpromisoa

13. Bere jardunak ingurumenean duen eragina murrizteko eta Artium Fundazioaren karbono-aztarna ahal den neurrian murrizteko ezarritako gomendio eta prozedurei jarraitzea.

Informazioa egoki erabiltzea

14. Artium Fundazioak bere gain hartutako gardentasun-konpromisoan parte hartzea norbere eginkizunen esparruan, sekretu profesionaletik eta datu pertsonalen babesetik eratorritako betebeharrak kontuan hartuta, betiere.
15. Behar bezala erabiltzea bere lana dela eta eskuratutako isilpeko informazioa, hau da, Fundazioarekin zerikusia duena eta hark publiko egin ez duena.
16. Arreta berezia jartzea Fundazioari lotutako hirugarrenei buruzko informazioetan, izan hirugarren horiek babesle, museoaren lagun nahiz hornitzaile.
17. Fede onez erabiltzea fundazioko langile gisa eskura daitekeen informazioa, behar den diskrezioaz eta informazioaren manipulazioa saihestuz.
18. Eskuratutako jakintza erakunde barruan partekatzea, Fundazioarentzat garrantzi handiko balio ukiezintzat harturik.
19. Fundazioko lanaren parte diren datuak eta dokumentuak gordetzea, horiek

10. Naturalizar, en general y específicamente en el entorno de trabajo, la igualdad de mujeres y hombres

11. Rechazar cualquier acto de discriminación por razón de identidad sexual, raza, ideología, religión o condición social.
12. Rechazar asimismo cualquier conducta abusiva, ofensiva o intimidatoria y toda manifestación de violencia física, psicológica o moral hacia las personas.

Compromiso con el medio ambiente

13. Seguir las recomendaciones y procedimientos establecidos para reducir el impacto de sus actuaciones en el medio ambiente y para disminuir en lo posible la huella de carbono de la Fundación Artium.

Buen uso de la información

14. Participar, en el ámbito de sus funciones, del compromiso de transparencia adquirido por la Fundación Artium, atendiendo en cualquier caso a los deberes derivados del secreto profesional y la protección de datos personales.
15. Hacer un uso adecuado de la información confidencial, es decir, toda aquella relacionada con la Fundación y que esta no haya hecho pública, a la que se tenga acceso por su trabajo.
16. Ser especialmente cuidadosos en el tratamiento de informaciones referidas a terceras personas vinculadas a la Fundación, ya sean patrocinadores, amigos del Museo o proveedores, entre otros.
17. Usar de buena fe la información a la que se pueda acceder como trabajadoras y trabajadores de la Fundación, manteniendo la discreción necesaria y evitando su manipulación.
18. Compartir internamente el conocimiento adquirido como un valor

behar bezala kontserbatzen saiatzea eta etorkizunean horien ardura izan lezaketen kideei transmitituko zaizkiela bermatzea.

Baliabideak egoki erabiltzea

20. Arretaz eta eraginkortasunez erabiltzea Fundazioaren baliabideak, ekonomikoak zein materialak.
21. Arretaz eta arduraz erabiltzea Artium Fundazioaren espazioak, instalazio teknikoak, altzariak eta lan-tresnak.
22. Zehazki, segurtasun-, profesionaltasun-, legezatasun- eta eraginkortasun-irizpideak aplikatzea ekipo informatikoen erabileran, Internetarako sarbidean eta posta elektronikoen eta beste aplikazio eta programa informatiko batzuen erabileran.

Fundazioaren izen ona babestea

23. Kontuan izatea norbere funtzioak modu profesional eta eraginkorrean betetzea Fundazioaren irudi publikoaren eta fundazioko langileen kolektiboaren onerako dela
24. Artium Fundazioaren irudia, izena edo markak lan-jarduera behar bezala garatzeko soilik erabiltzea eta haiek erabiltzeko ezarritako irizpideak errespetatzea.
25. Aurreikusitako bideak erabiltzea Fundazioko langile gisa komunikabideekin harremanak izateko.
26. Hitzaldi, mintegi, kongresu eta antzeko foroetan Fundazioko langile gisa parte hartzean edo komunikabideetan eta Interneteko foroetan artikulatu eta idazkien bidez parte hartzean erakundearen ordezkari gisa ari dela ohartzea.

intangible de gran importancia para la Fundación.

19. Conservar los datos y documentos que forman parte del trabajo en la Fundación, procurar su adecuada conservación y garantizar su futura transmisión a otros posibles responsables de los mismos.

Buen uso de los recursos

20. Utilizar de manera cuidadosa y eficiente los recursos de que dispone la Fundación, ya sean económicos o materiales.
21. Hacer un uso cuidadoso y responsable de los diferentes espacios, instalaciones técnicas, mobiliario e instrumentos de trabajo de la Fundación Artium.
22. En concreto, aplicar criterios de seguridad, profesionalidad, legalidad y eficiencia en el uso de los equipos informáticos, en el acceso a Internet y en el uso del correo electrónico y otras aplicaciones y programas informáticos.

Salvaguarda de la reputación de la Fundación

23. Ser conscientes de que realizar las funciones de forma profesional y eficiente redundará en beneficio de la imagen pública de la Fundación y en la del colectivo de trabajadoras y trabajadores de la misma.
24. Utilizar la imagen, el nombre o las marcas de la Fundación Artium únicamente para el adecuado desarrollo de la actividad laboral y respetar los criterios establecidos para su uso.
25. Utilizar las vías previstas a la hora de establecer relación con los medios de comunicación en calidad de personal de la Fundación.
26. Ser conscientes de estar representando a la institución cuando se participa como trabajadoras y trabajadores de la Fundación en conferencias,

5. Kodearen aplikazioaren jarraipena eta kontrola

Jarraipen Batzordeak izango du jokabide-kodearen aplikazioaren jarraipenaren eta kontrolaren eskumena, eta hark zainduko ditu kodearen zabalkundea, ezagutza, betetzea eta interpretazioa.

Jarraipen Batzordea Fundazioaren Batzorde Betearazleko kideek osatuko dute, eta Fundazioaren Patronatuko Idazkaritzaren laguntza izango du. Patronatuak idazkari-lanak egingo ditu, eta hitza izango du, baina botorik ez.

Honako eginkizun hauek izango ditu Jarraipen Batzordeak:

- Kodea eguneratuta edukitzeko eta haren edukia hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak eta proposamenak egitea.
- Jokabide-kodea aplikagarri den eremuan diharduten pertsonen kontsultei erantzutea. Kodeari buruzko kontsultak eta jakinarazpenak egiteko, jokabidekodea@artium.eus emaileko helbidea sortu da, baita postontzi etiko bat ere, jakinarazpenen konfidentziasuna bermatzen duena.
- Kode honetan bildutako balio, printzipio edo jokabideak urratzeari buruzko kexak edo salaketak jasotzea eta dagokien moduan izapidetzea, interesdunari entzuteko erabateko bermea emanaz, beti. Informazioaren konfidentziasuna bermatuko da, betiere, baita informazioa ematen duen pertsonarena ere.

seminarios, congresos y otros foros similares, o cuando se hace mediante artículos y escritos en medios de comunicación y foros de internet.

5. Seguimiento y control de la aplicación del Código.

El seguimiento y control de la aplicación del Código de Conducta será competencia de una Comisión de Seguimiento, que velará por su difusión, conocimiento, cumplimiento e interpretación.

Dicha Comisión de Seguimiento estará compuesta por los miembros del Comité Ejecutivo de la Fundación y será asistida por la Secretaría del Patronato de la Fundación, que actuará como secretario o secretaria, con voz, pero sin voto.

Las funciones de esta Comisión de Seguimiento serán las siguientes:

- Realizar las recomendaciones y propuestas que sean necesarias para mantener actualizado el Código y mejorar su contenido.
- Resolver las consultas formuladas por las personas sujetas al ámbito de aplicación del Código de Conducta. Para poder realizar cualquier consulta o notificación relacionada con el Código se ha habilitado una dirección de correo electrónico, jokabidekodea@artium.eus, así como un buzón ético que garantiza la confidencialidad respecto a las comunicaciones que se realicen.
- Recibir las quejas o denuncias, en su caso, sobre posibles incumplimientos de los valores, principios o conductas recogidas en este Código y darles el trámite que proceda, siempre con plena garantía de la audiencia de la persona interesada. En todo caso, se garantizará la confidencialidad

- Kodea betetzeari buruzko gomendioak ematea hura aplikagarri den eremuan diharduten pertsoneri.

Batzorde Beterazleak jokabide-kodearen jarraipenari buruzko puntua txertatuko du bere bilkuren gai-zerrendan, urtean behin gutxienez.

Jarraipen Batzordeko kideek beren burua behartzen dute beren jardunean jakindako informazio guztia isilpean gordetzera, bereziki honako hauei dagokienez: aztertutako gertaerak, ikerketen edukia, hartutako deliberazio eta erabakiak, eta izaera pertsonaleko datuak. Era berean, ez dute inolako adierazpenik egingo, ez publikorik ez pribaturik, aurrez adierazitakoari buruz eta abian den inongo prozedurari buruz.

Batzordeko kideren bat kode honetan adierazitako kausaren batean nahastuta egonez gero, ez zaio emango gaiari buruzko informaziorik.

6. Kodea garatzea eta aldatzea

Kodean aldaketarik egin ahal izateko, ezinbestekoa da Batzorde Beterazleak aldaketa proposatzea eta Artium Fundazioaren Patronatuaren osoko bilkurak onartzea.

7. Indarraldia

Arabako Artium Fundazioaren jokabide-kodea Patronatuaren osoko bilkurak hari onspena eman eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta halaxe jarraituko du hura aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

de dicha información, así como la identidad de la persona que la facilite.

- Plantear recomendaciones sobre el cumplimiento del Código a las personas sujetas a su ámbito de aplicación.

El Comité Ejecutivo incluirá en su orden del día al menos una vez al año un punto relacionado con el seguimiento del Código de Conducta

Los miembros de la Comisión de Seguimiento se obligan a guardar secreto sobre toda la información de la que hayan tenido conocimiento durante el ejercicio de sus funciones; en particular sobre los hechos examinados, el contenido de las investigaciones, deliberaciones y decisiones adoptadas, así como sobre los datos de carácter personal. Asimismo, no harán ninguna declaración pública o privada relacionada con lo anteriormente expresado ni sobre ningún procedimiento en curso.

El o la miembro de esta Comisión que estuviera inmerso en alguna de las causas contempladas en este Código deberá abstenerse del conocimiento del asunto.

6. Desarrollo y modificación

Cualquier modificación del Código requerirá la aprobación del Pleno del Patronato de la Fundación Artium, a propuesta del Comité Ejecutivo.

7. Vigencia

El Código de Conducta de la Fundación Artium de Álava entrará en vigor al día siguiente de su aprobación por el Pleno del Patronato y estará vigente en tanto no se apruebe su modificación o su derogación.

ARTIUM MUSEOA

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco